



Usurbilgo Udala

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2022KO APIRILAREN 28AN
GOIZEKO 09:00ETAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Beñat Larrañaga Urdanpilleta.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Itziar Basterrika Unanue eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2022/04/12.

Batzarkideek 2022ko apirilaren 12ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

**2.- CARPINTERIA BEREZIARTUA C.B. ENPRESARI AGINAGAKO SERRAGAIN ETXEKO
TEILATUA ETA AURREALDEA BERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0313

CARPINTERIA BEREZIARTUA C.B. enpresak (IFK: E20113437), Aginagako Serragain etxeke (Estrata kalea 3) teilatua eta aurrealdea berritzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	75.709,80 €
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 6.829,20 €
	Fidantza (%120): 8.195,04 €

Eskaera eta aurkeztutako dokumentazio osagarria aztertu ostean, udal arkitektoak, Carlos Arroita Martinez jaunak, 2022ko apirilaren 12an ALDEKO txostena eman du.

Hau guztia kontuan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: CARPINTERIA BEREZIARTUA C.B. enpresari, Aginagako Serragain etxeke (Estrata kalea 3) teilatua eta aurrealdea berritzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- ORIGAMI taldeko Antton Korta Torrente eta Julen Arteaga Iriondo arkitektoek



Usurbilgo Udala

2021eko abuztuan bisatutako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 6.829,20 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (8.195,04 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

8.195,04 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta “*Fidantza: HZ.04/2021-0313*” jarriaz kontzeptuan.

- Fatxadaren akabera zuri kolorekoa izatea lehenetsiko da. Ondo ikusten da parte bat *ladrillo caravista* izatea.
- Berritzen diren leihoak eta atea gaur egungo material eta kolorekoak izango dira.
- Lan eta Enplegu sailak bere ebazpenean ezarritako baldintzak bete beharko dira:
 - Laneko Plana behar bezala gauzaten den egiaztatu ahal izateko, enpresak, aurretik eta behar besteko denboraz (3 egun baliodun), lan-agintaritza honi jakinaraziko dio: lanen hasiera data eta lan egutegia, enpresa kontratistaren lantokia irekitzeko adierazpena, hala nola lan metodoan eta/edo inplikaturako langileen zerrendan gerta litezkeen aldaketak, beharrezko agirien bidez dokumentatuta.
 - Era berean, Laneko Planaren aplikazioaren jarraipena egiteko, enpresak lan-agintaritza honi lan giroaren ebaluazioaren emaitzak bidaliko dizkio. Gogorarazten da enpresaren Higiene Arriskuaren Ebaluazio eguneratuta izateko betebeharra, eta horretarako, "INSHTren amiantoarekiko esposizioarekin lotutako arriskuak ebaluatzeko eta prebenitzeko gida teknikoa" erabiltzea gomendatzen da.
 - Laneko Planaren aplikazioaren jarraipena egiteko, enpresak lan-agintaritza honi amiantoazko hondakinak bildu, garraiatu eta hondakindegian utzi izanaren ziurtagiriak bidaliko dizkio.
- Baimen hau hirugarrengoen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.
- Egindako obraren balioari dagozkion onurak ordaindu egingo dira; baita hesia,



Usurbilgo Udala

karga-igogailua, aldamioa edo kontainerra ipintzeari dagozkionak ere, horrelakorik jarriz gero.

- Obrak egiterakoan, aurkeztutako eskaeran esandakoa egin behar da.
- Udalak edozein unetan ikuska lezake lanen nondik norakoa, proiektuari edo onartutako eskaerari egokitu zaizkion jakiteko, baimenaren baldintzak bete diren ikusteko, eta orokorrean, betetzea dagozkion ordenantza eta araudiak konplitu dituen jakiteko, bestela legeak esandako neurriak hartuko dira. Esangura horrekin, obretan beti eduki behar da udalak emandako baimenaren aldakia, eta hala balegoke, proiektu teknikoarena.
- Horrez gain, haxe gogorarazi behar da: lizentzia eskatu duenak agindutakoa betetzeko eta eraikitzaileari betebeharrak zeintzuk diren jakinarazteko erantzukizuna daukala, eraikitzailea edo obragilea baita bete ez diren aginduen ordezko erantzulea.
- Espaloian nahiz galtzadan, hau da, kalean, inoiz ezingo da zaborrik utzi, ezta materialik edo beste inolako tresneriarik ere.
- Kalean kontainerra jartzeko premia badago, horretarako dagoen baimena eskuratu behar da, eta hau lan baimenetik kanpo dagoen gauza bat dela zehazten da. Kontainerren gainean esan beharra dagoena da, kontainerra ezin dela sekula gainezka egon obrako materialez eta zaborrez, eta haren ingurua ere, beti garbi eduki behar dela.
- Obra batean paratu behar den edozein aldamio, bai eraikinaren kanpoaldean bai barnean, alde zuzenetik lizentzia edo baimena eskatu beharko da. Baimen horrek ez du zerikusirik oraingo obra lizentziarekin.
- Eremu publikoan lanak egin edo erreminta ekipo bat (konpresorea, iraulkia, etab.) instalatu behar izanez gero.), babes-hesia jartzeko baimena eskatu behar da (zehaztu da hori ez dela obra-lizentziarena bezalakoa), hesiaren hedadura eta neurriak adierazi behar dira, eta, eskabidearekin batera, oinplano-plano bat aurkeztu behar da, hesiaren kokalekua zehatz-mehatz deskribatzen duena.
- Lanen ordutegiari dagokionez, lanak ezingo dira 22:00etatik 08:00etara eta jaiegunetan egun osoan zehar burutu. Etxe barruko lanetarako, neurri zuzentzaile egokiak hartuko dira zarata edo bibrazioengatik auzokoentzat sor daitezkeen eragozpenak gutxitzeko.
- Proiektuan egindako edozein aldaketa, espresuki onartu beharko du Udalak.
- **Epeei buruzko baldintzak:**
 - Obra lizentzia emateko erabakia jakinarazten denetik, hilabeteko epean hasi beharko dira obrak.



Usurbilgo Udala

- Obrak bukatzeko gehienezko epea 6 hilabetekoa izango da.
 - Obra geldi egon ahal izango da, promotoreari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik, gehienez, hilabetez.
 - Lizentzia honetan jasotako epeak luzatzeko eskabide arrazoitua egin daiteke.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
 - Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
 - Obren Zuzendari Teknikoak izenpetutako Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.
 - Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
 - Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
 - Obralanen Zuzendariak izenpetutako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.

BIGARRENA: Aldez aurretik dagokion Udal zerga ordainduko da udal arkitektoak bere txostenean zehaztutakoaren baitan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:15etan bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.